



IRUZUR FISKALAREN KONTRAKO PLANA, 2021-2023

2022ko emaitzak

Berreskuratutako zenbatekoa **2.353.677,59 euro**tara iritsi da.

Kopuru horretatik, 1.788.770,15 euro jaso ditu Udalak **zergak eta tasak erregularizatzeko egintzen** bidez –horien artean, Udal Ikuskapen Planaren barruan garatutakoak–, batez ere eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari (EIOZ), ekonomia jardueren gaineko zergari (JEZ) eta jabari publikoa okupatzeagatik tasei (pasabideak eta bide publikoa hesiekin eta aldamiuekin okupatzea) dagokienez.

Udal zerga eta tasen **bilketa** gauzatzeko ekintzen bidez bildu ditugu gainerako 564.907,44 euroak.

Azkenik, **hobekuntza- eta efizientzia-ekintzei** dagokienez, honako hauek nabarmendu nahi ditugu: hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren dosierren automatizazioa, hartara likidazioen jaulkipena arintzeko; ‘Nire zergak klik batean’ web-orrian egindako hobekuntzak; ordaintzeke dauden zorren kobrantza arintzeko prozeduren sistematizazioa; trafiko-isunen zehapen-prozeduraren izapidetze elektronikoaren analisia eta garapena, eta egoitza elektronikoan zergak biltzeko prozedurako dosier digitala txertatzeko analisia.